

HAUR LITERATURA

Mundua ikasten

DUMITRU

Egilea: Koldo Izagirre.
Argitaletxea: Erein, 2014.
Orri kopurua: 73 orri.
Salneurria: 9,50 euro.

Asun AGIRIANO

Badira urte batzuk Koldo Izagirre idazlearen "Zangozikin" (Ige-la, 2009) album ilustratua hizpide hartu genuela. Pasaiako idazle oparoak ia genero guztiak landu ditu: poesia, narrazioa, eleberria, kronika, itzulpena, eta baita, oraingo honetan bezala, gazte literatura. Bi liburu ditut gogoan: "Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak" (Elkar, 1992) eta "Hortzak galzen zituen kantaria" (Elkar, 2006), biak ezohikoak, umore eta ironiaz gozaturik.

"Dumitru" oso bestelako jantziak aurkezten zaigu: etorkinak, identitatea, krisia... Gaur egun gizartean pil-pilean dauden gaiak ageri dira gazteei zuzendutako eleberri labur honetan. Narrazio urbanoa da, eleberri soziala izendaturiko generokoa. Pertsonaiak hauexek dira: kalean soinu jotzen duen Cosmi musikari errumaniarra; merkatuan Mohamed saltzaile-

ari fruta erosten dion Felisa etxeandrea; Dumitru gaztea, iPhone bat lapurtu duelakoan poliziak atxilotu duena, Dumitru euskalduna hitzez eta bizi-tzaz, Berri Txarrak entzun eta txamarra beltza soinean darmana, injustizia ezagutuko duena. Baita Olatz, eskolako laguna, eta haren ama, Marta, lantegian arazoekin dabilena.

Pertsonaien inguruan arazo pertsonalak eta sozialak biltzen dira. Euren istorioak puzzle baten piezak izango balira bezala aurkezten zaizkigu eta irakurleari osatze lana eskatzen zaio: Felisa da Olatzen amona, Cosmi Dumitruen aita... Forma aldetik badu narrazioak berritasunik, bost kapitulutan egituratua, eta gogoetan murgilduta utzi-ko gaituen sarrera iradokitzaila bakoitzean, arrainak eta Danubio errearen istorioa lotzen duen alegoria irudikatuz. Danubio urdina ezaguna; gaur egun, ordea, lokatzaren erruz, beltza bihurtu dena. Osagai hauek guztiek erritmo arina ematen diote irakurketa-ri. Apaindurarik gabeko estiloa, gordina, batzuetan

ukitu poetikoa agertu arren. Begiak ez ixteko gogoratzen digu Izagirrek, eguneroko errealtateak lekukoak behar dituela. Injustiziaren aurka gazteek duten erantzuteko ahalmenari heltzen dio. Gazteak beti dauka ekiteko indarra eta bihotza. Neketsuak dira helduen ardurak «triste egoteko gogo daukat», dio Martak, «baina ez daukat esku-biderik. Ikasi egin behar dut indartsua izaten, iluntasunetik irtetzen». Hitza eta eztabaidarako lekuak azaltzen dira eleberrian, gizartearen jokalekuak: eskola, lantegia, kalea. Sarea lotzen

duen haria errealtatea da, eta biltzen dituen gaiak egungo gizartean ikusten ditugun osagaiak dira, bazterketa soziala, aurreiritzien indarra etorkinak gizarteratzeko orduan, eta horien aurrean betiko balioak: adiskidetasuna, elkartasuna, amodioa. Bizitzan den legez, maitasuna da motorra eleberrian. Eta beldurra, aldamenekoa zigortzeko arrazoia.

Amaileran, kartzela saihesteko senideen lurraldera ihes egiten du Dumitruk. Eskolako adiskideek maite dute, Olatzek bereziki. Institutuan gelako asanblada egingo dute, ikasle bat arbelera hurbildu, eta "Denok gara Dumitru" idatziko du. Jokabide desberdinak azalduko dira, denek ez baitute gertatutakoa berdintsu ikusten, irakasle baten esango die «inportantea dela hitz egitea, argudiatzea, iritziak lantzea eta usteak alderatzea». Mundua ikasten ari dira, errealtatean kokatzen.

Gazte literaturan dagoen hutsune handia betetzera dator irakurketa interesgarri hau, euskal gazte literaturaren panorama urria aberastera modu berezi eta arriskutsu batean.



ARTE

La arquitectura neoclásica vasca recogida en un libro

La editorial Nerea publica "El gusto neoclásico. Arquitectura del País Vasco y Navarra", donde recoge las principales obras de arquitectura neoclásica edificadas en Hego Euskal Herria a finales del siglo XVIII y principios del XIX. El ejemplar está firmado por J. Cenicacelaya, M.J. Ruiz de Ael e I. Saloña.

GASTRONOMÍA

«Los secretos del txoko a su cocina», por Andoni Díaz

Andoni Díaz Urrutia ofrece a través de "Los secretos del txoko a su cocina" (editorial Sua) los trucos, formas de cocinar y misterios mejor guardados en el mundo de la gastronomía. Aficionado a la cocina de los txokos, el autor aporta en este libro sus recetas más personales y el buen hacer de la cocina de las sociedades gastronómicas.

HELDUEN LITERATURA

Etxean izanda etxerik gabe

ORUBE ABANDONATUAK

Egilea: Garazi Kamio
Argitaletxea: Erein, 2014.
Orri kopurua: 184 orri.
Salneurria: 16,85 euro.

Estibalitz EZKERRA

Garazi Kamioren bigarren liburuari, "Orube abandonatuak", hasiera ematen dion pasartean esaten zaigu «deserri guztiak dir[ela] berdinak». Deserri egoera, fisikoa zein psikologikoa, eragin duten faktoreak denetariokoa izan daitezke, baina deserriaren dagoenaren jarrera "unibertsala" dela esan daiteke: iraganaz hitz egiteko ezintasuna, orainaldiari heltzeko zailtasunak, uneoro lekuz kanpo egotearen sentsazioa ("etxera" itzuli nahi eta ezina, "etxea" izandako horretan aurkitu arren). Isiltasuna, etsipena, galera sentsazioa. Horra sintomak. Jarraian, tartekatuz doazen hiru istorioen bitartez erakutsi nahi zaigu hala dela, bizi baldintza eta garai ezberdinak egokitu arren Mariok, Mirenek eta Mainerrek, istorio bakoitzeko pertsonaia nagusia hurrenez hurren, deserria(n) bizi direla (dutela).

1940an kokaturik dago Mario protagonista duen kontakizuna, zenbait urtez Belchiten (Zaragoza) lan behartuak egiten ibili ostean etxera, Tolosara, itzultzen

denean. Belchiteko bataila gerra zibileko pasarte ilunenetako bat da. Nazionalen aurrera egitea eragoztearren herria hartu zuten errepublikanoek, eta batzuen eta besteen arteko borrokan milaka lagun hil eta herria bera erabat suntsituta geratu zen. Gerra amaituta, Francok erabaki zuen herria berriro eraiki beharrean haren ondoan berri bat jasoko zuela, eta preso hartutako errepublikanoak jarri zituen zeregin horretan. Mario zergatik bidali zuten Belchitera ez zaigu behin ere argitzen. Berak erugabetzat du bere burua, eta herrira bueltan emazteak, Elenak, harrera beroa egitea espero du. Baina ez da hala gertatzen. Narrazioak irauten dituen bizpahiru egunetan emazteari bere itzulera zama eta lotsagarri zaiola ohartuko da Mario. Etxean duten bere argazki bakarra komoda baten gainean etzanarazita aurkitzen du, haren irudia jasanezina bailitzan. Kontu txikia da hori, baina, amagarrebaren hilbeilak irauten bitartean armairu baten barruan itxita egon behar izateko suposatzen duen irainaren aldean.

1980ko hamarkada amaierara, 1989ko Gabon zahar egunaren bezperara hain zuzen, garamatza bigarren istorioak. Kasu honetan, aipatu hamarkadan gazteen artean batik bat sekulako kaltea eragin zuen heroina zaletasuna

du hizpide, zaletasun horren eraginpean egondako Mirenen bitartez. Marioren etxean bezala, Miren bakarrik bizi den pisuan ere bada komoda etzanarazitako argazki bat, bere seme Borjarena, drogan sarrarazi zuen Germanekin izandakoa. Gurasoekin bizi da orain umea, eta debekatua diote hura ikusi edo harekin harremanetan jartzea erabat osatzen den arte. Jadanik heroinarik hartzen ez badu ere, Mirenen egoera ez da ona. Erabat bakarrik sentitzen da, baina jendearekin inolako traturik izateari beldur dio ez baitu epaitua izan nahi. Bera bezala drogan ibilitakoak parria batzuk dira, baita familiarentzat ere.

Hirugarren istorioiko protagonistak, Mainerrek, badu argazki bat ere, aldizkari batetik moztutako gizon baten irudia duena. Amari zein lagunei sinetsarazi die Ander dela hura, etengabe bidaiatzen da-



bilan bere mutil laguna. Langabezian denetik gezurrezko bizimodua asmatu behar izan du ingurukoen aurreikuspenak (eta bereak neurri handi batean) ez zapuzteko. Baina gezurra bizi-rik mantentzearen erabat isolatu du Mainerrek bere burua.

Mario, Miren eta Mainerren istorioetan gai komunak agertzen badira ere (bakardadea, babes

falta, bazterketa), eta hirurak mota ezberdinetako indarkeriaren biktima direla esan badaiteke ere (faxismoa, droga-zaletasuna, langabe kopurua igorazi duen neoliberalismoa), irakurleak ariketa handia egin behar du hiru narrazioen arteko lotura antzemateko, batez ere Mainerren istorioari dagokionez. Deserriak eragindako isiltasuna eta bazterketa ilustratze aldera gauza asko, gehiegi agian, esan gabe geratzen dira narrazioa bera inpresio sorta bat bihurtuz, irakurlearengana heldu bezala joan egiten dena.